

Sorginen Lasterketak 350 korrikalari batuko ditu bihar Axpen



Sorginen Lasterketaren 16. edizioa jokatu-ko da bihar Axpen. 350 korrikalarik 21 kilometro eta 1.700 metroko desnibel positiboa dituen ibilbidea izango dute aurretik. Lasterketa Twitch bidez zein ANBOToren webgunean jarraitu ahal izango da • 26

Iker Unzueta abadiñarra Portugaleko Vizela futbol taldean

Abadiño • Iker Unzueta futbolariak Portugaleko lehenengo mailan hasi du denboraldia, 20.000 biztanle eta zaletasun itzela duen herri batean. • 2-3



Paule Mallagaraik musikal berria estreinatuko du irailean Madrilen



Kultura • Paule Mallagarai artista durangarrak hiru urte daramatza Madrilen beharrean. Iaz 'Mamma mia!' estreinatu ondoren, aurtengo 'Una rubia muy legal' an- tezlanean parte hartuko du. "Etorkizunean Euskal Herrian ikusten dut neure burua, baina antzerki musikaletan lan egiteko leku aproposa da Madril", azaldu du. • 24



**Iker Unzueta
Arregi**

Vizela futbol
taldeko jokalaria

ABADIÑO | 1998

“Ahalegin guztia egiten nabil eta aukera ematen didatenean aprobetxatu egingo dut”

Iker Unzueta futbolari abadiñarrak Portugalgo lehenengo mailako Vizela taldean hasi du denboraldia

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Durangaldeko harrobian zaildutako futbolaria da Iker Unzueta. Abadiñon ekin zion bere ibilbideari, eta handik Kulturalera jauzi egin zuen. Logroñesen eskutik bigarren B maila ezagutu zuen, baina orain arteko bere ibilbide profesionaleko lorpenik handiena Amorebietan bizi izan zuen, talde zornotzarra Bigarren Mailara igota. Orain, abadiñarrak abentura berriari ekin dio Portugalgo lehenengo mailako Vi-

zela taldean. Erroka berria da, bai profesionalki baita pertsonalki ere. Vizela 20.000 biztanleko herri txiki bateko taldea izan arren, lehenengo mailan jokatzeko bere zailtasunak ditu.

Zelan sortu zen Portugalgo ligan jokatzeko aukera?

Liga amaitzeaz zegoela, ordezkariak deitu zidan. Portugalgo lehenengo mailako ekipo batek ni fitxatzeko interesa zuela azaldu

zidan. Proposamena bidali zidaten eta ingurukoekin berba egin eta gero baietz erantzun nien.

Buelta asko eman zenizkion kon-tuari?

Hasieran bertigo apur bat eman zidan, baina eman didaten aukera oso ona da niretzat. Portugalgo lehenengo mailako liga itzela da. Ez zitzaidan asko kostatu erabakia hartzea.

Hilabete batzuk daramatzazu Portu-galen. Zelan zabilta?

Apurka-apurka egokitzen nabil. Hasieran apur bat gatx egiten da, beste hizkuntza bat dutelako, beste herrialde bat delako, eta jokatzeko beste modu bat dutelako. Baina hobetzen nabil, eta geroago eta gehiago integratzen. Lagunak eta familia ere etortzen dira bisitan. Bikotekidea ere nigaz etorri da orain, eta horrek laguntza handia eman dit.

Egokitzea ez da hain erraza izaten.

Espainiar bi etorri dira eta hizkuntzak laguntzen du hartu-emanetarako. Portugesa ikasten nabil, eta egoera hobetzen dabil. Gaztela-

niaren oso antzekoa dela ematen du, baina ez da hain erraza. Eurek askoz hobeto ulertzen dute gaztelania guk portugesa baino. Aurten ingelesa ikasteko asmoa ere badaukat.

“Intentsitate handiz bizi dute futbola. Vizela herria futbolaren inguruan hazi dela esaten dute”

Zelakoa da Vizela herria?

20.000 biztanle inguruko herria da, oso herri polita. Oso giro ona dago bertan, batez ere asteburuetan.

Zelan bizi dute futbola?

Intentsitate handiz. Vizela herria futbolaren inguruan hazi dela esaten dute.

Herri txikietan familiarragoak dira? Ezagutzen zaituzte kalean?

Vizelara irten eta jendeak ezagutzen gaitu, bai.

Ligari dagokionez, zein da taldearen helburua?

Mailari eustea. Hortik aurrera, ikusiko dugu.

Liga hasieratik gehiago espero zenuten?

Lehenengo jardunaldietan talde indartsuen kontra jokatzeko tokatu zaigu, baina zeozer gehiago lortzea espero genuen.

Zelan zabilta denboraldi hasierako jardunaldietan?

Oraingoan, ez nabil asko jokutzen. Nire helburua da entrenamenduetan demostratzea jokatzeko moduan nagoela. Ahalegin guztia egiten nabil eta aukera ematen didatenean aprobetxatu egingo dut.

Zein itxura hartzen diozu Portugalgo ligari?

Oso talde onak daude. Lehenengo jardunaldian Lisboako Sportingen aurka jokatu genuen. Talde batzuk oso indartsuak dira.

Zelako azpiegiturak dituzue Vizelan? Zelan egoten da zelaia?

Zelaiak harmaila bi ditu, eta nahiko beterik egoten dira biak.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide

“Oraindino salbuespen legediaren menpe daude gehienak, espetxean edo Euskal Herritik kanpora”

Sarek Etxera Eguna antolatu du irailaren 16rako. Durangon eta Iurretan izango da



Garazi Etxebarria, Igor Olaetxea, Eneko Landa eta Lide Azueta.

DURANGALDEA • IGOR GALARZA

Etxera Eguna antolatu dute Durangaldean, irailaren 16rako. Durangon eta Iurretan egingo dituzte ekitaldiak. Lide Azuetak erantzun die galderei.

Lehenengo aldia da Durangaldean Etxera Eguna antolatzen duzuenen. Zelan sortu da aukera?

Urteetan zehar preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekimenak egin ditugu eskualdean. Durangaldea erreferente izan da honelako ekimenetan. Eskualdean bederatzi preso eta iheslari bat daude, eta argi geneukan eskualde lez antolatu behar ginela. Azken urteekin alderatuta egoera nabarmen aldatu eta hobetu bada ere, oraindino salbuespen legediaren menpe daude gehienak, espetxean edo Euskal Herritik kanpora. Helburua lehenengo bera da: denak etxera ekartzea. **Kontatu apur bat zer antolatu duzun.**

Goizerako manifestazio bat antolatu dugu. Durangotik Iurretara izango da, eta Iurretan ekitaldia, bazkaria eta bazkalostea egingo ditugu. Bazkaria berezia izango da; janari goxotik aparte, bazkaloste girotu bat prestatzen gabiltza. Horren ondoren, jai-giroan bueltatuko gara Durangora, eta Alde Zaharretik elektrotzaranga bat ibiliko da. Eguna DJ Kuguzag amaituko dugu, Intxaurren.

Eskualdeko hariak lotzen lagunduko du egunak?

Hasieratik argi eduki dugun asmoa izan da eskualdean lan egitearena. Gehienak durangarrak badira ere, herri guztietan dago preso eta iheslarien eskubideen alde lan egiteko nahia eta asmoa. Modu honetan, hartu-emanak eta loturak berregin ditugu, eta baita sare berriak ehundu ere. Hileak daramatzagu elkartzeko eta berba egiten. Euren ere parte hartuko

dute, eta, lan handia hartu badugu ere, polita izaten ari da.

Sarek marko berri bat zabaldu zuen orain hile batzuk. Zertan datza?

Mezua argia eta zuzena da: salbuespen egoerari amaiera ematea. Ez gabiltza inpunitatea eskatzen, ezta tratu berezirik edo pribilegiarik ere.

Zein da Durangaldeko preso politikoaren egoera?

Durangaldean bederatzi euskal preso daude. Horietatik bakarra dago baldintzapeko askatasunean, eta beste bat hirugarren gradu. Gainerako guztiak espetxean daude, denak Euskal Herrian. Gorka, Lola, Iñaki, Gita, Itziar, Josu eta Iurdan kalean egon beharko lirakeke, baina, oraingoz, hau ez da gauzatu. Euskal Herrian badaude ere, bidea oso luzea da oraindino. Fiskaltza errekurtsio mordo ipintzen dabil Madriletik, preso asko berriro espetxera bidaltzeko asmoz.

Durangoko jaiak iragarriko dituen kartela irailaren 11ra arte bozkatu daiteke

Herritarrek zazpi kartelen artean aukeratu dezakete



Epaimahaia aukeratu dituen kartel finalistak.

DURANGO • E.H.

Durangoko Udalak martxan ipini du sanfaustoetako kartela aukeratzeko bozketa. 16 urtetik gorako durangarrek eman dezakete botoa, partehartu.durango.eus webgunean. Zazpi kartelen artean bakarra aukeratu ahal izango dute, irailaren 11ra arte.

Botoa modu presentzian eman gura duenak Intxaurren-

'partehartu.durango.eus' webgunean edo Intxaurren doko bulegoan botoa eman daiteke

doko Kultura eta Gazte Gunera jo dezake, eta han instalaturiko ordenagailua erabili.

Marmitakoa, umeentzako ekintzak eta musika ugari Ibaizabalgo jaietan

DURANGO • E.H.

Durangoko Ibaizabal auzoan durangoko jaiak hasi dituzte gaur. Iaz antolatu zituzten jaiak lehenengoz, eta, harrera ona izan zuten, aurten ere egitarau oparoagaz datoz. Umeentzako jolasak eta ekintzak egingo dituzte gaur,

monitoreekin. Txupinazoa 19:00etan izango da, eta, ondoren, poteo herrikoia egingo dute trikitilariekin. KSKA selektoraren pintxadagaz amaituko dute eguna. Egitarau osoa ezagutzeko, ale honetako Agenda atalean (22. orrialdea).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko irailaren 8a
21. urtea - 947. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

'Motxila Durangon bete' kanpaina, eskolara bueltan tokiko kontsumoa bultzatzeko

Irudi berria sortu dute umeei erabiltzen dituzten motxilekin

DURANGO • E.H.

Dendak Baik 'Motxila Durangon bete' kanpaina ipini du martxan, herrian Lehen Hezkuntza eskaintzen duten sei ikastetxeekin batera (Kurutzia, Landako, Nevers, Jesuitak, San Antonio eta Zabalarra). Ikasturte berriko hasiera honetan, tokiko kontsumoa eta kontsumo arduratsua sustatu gura dituzte. Irudi berri bat sortu dute umeei eskolara joateko erabiltzen dituzten motxilekin, eta horiek herriko komertzio eta dendetako salgaiekin betetzera deitu dute. Irudi berria ikas-

tetxeetan, saltokietan, tokiko hedabideetan eta sare sozialetan ipiniko dute ikusgai. "Azken urteotan, ikasleen bisitak antolatu ditugu saltokietara, ikastetxeekin opari txartelak oparitu dituzte herriko dendetan gastatzeko, eta abar. Lankidetzaren puntual horiek geroago eta ohikoagoak dira, baina oraingoan urrats bat gehiago eman dugu, alde guztiak ekintza berean biltzen dira eta", azaldu dute Dendak Baiko arduradunek. Ekimenak Durangoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza du.



Kanpainaren aurkezpenean ateratako argazkia.

Appaloosa Quartet, Herejeen alaba eta Kuttune, Eleizetan programan

Jaialdia Zarzuela Errezitalak zabalduko du, zapatu honetan bertan. Kontzertua Etxanoko elizan izango da, 20:00etan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako eliza eta ermitak ganbera musika, jazz eta zein musika barrokoa taularatzeko eszenatoki izango dira asteburu honetatik aurrera. Eleizetan musika programa sei ekitaldigaz dator bueltan. Programako lehenengo kontzertua zapatu honetan bertan egingo dute, Etxanoko elizan, 20:00etan. Bertan, Zarzuela Errezitala izango da; pianoagaz eta ahots soprano zein tenoreekin osaturiko emanaldia izango da. Hortik aurrera, hurrengo asteburuetan ere zer entzun eta zer gozatu ugari egongo da Zornotzako ermita eta elizetan.



Appaloosa Quartet.

Ainhoa Salterain alkateak eta Koldo Bilbao kultura zinegotziak egitarauko xehetasunak eman dituzte asteon. Egitarauaren "aniztasuna eta kalitate handia" izan dituzte ahotan. Honako hauek dira egitarauaren baturiko beste bost emanaldiak: Appaloosa Quartet, Herejeen alaba, Ana Carla Maza, Kuttune eta Melyus laukotea. Kontzertu guztiak doakoak dira.

Boroako Mendi Martxa egingo dute zapatu honetan, Anaitasuna elkarteak antolatuta

Mendi martxak 9:00etan irtengo du, Boroako herrigunetik. Mendi ibilaldia egin eta gero, hamaiketakoa, bazkaria, giza probak, musika kontzertua eta bolo txapelketa izango dituzte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Boroako Anaitasuna elkarteak egun osoko egitaraua antolatu du zapaturako, hilaren 9rako. Ekitaldi guztien artean, bada nagusi den bat: inguruko paraje eta mendiak zeharkatuko dituen mendi martxa. Boroako txokotik irten eta, 14 kilometroko ibilbidea eginda, mendizaleek Munezorrotz, San Martin eta Arrizurigan zeharkatuko dituzte; handik, gero, abiapuntura

Hamaiketakoa, giza probak, kontzertua eta bolo txapelketa izango dira gainerako ekitaldiak

bueltatuko dira. Martxa 9:00etan hasiko da, Boroako auzogunetik. Nagusiek 10 euro ordaindu beharoko dituzte. Umeei 5 euro. Izen ematea 8:15etik 8:45era egin ahal izango da.

Martxaren ondoren, gainerako ekitaldi guztiak etorriko dira, bata besteari atzetik. 12:00etan kamineten banaketa eta hamaiketakoa egingo dute. Ondoren, giza probak (13:30) eta bazkaria (15:00) izango dituzte. Eguna Eneko Larruzea Amezuaren kontzertuagaz eta bolo txapelketagaz amaituko dute. Azken ekitaldi bi hauek 17:00etan eta 19:00etan egingo dituzte, hurrenez hurren.



Mendi martxak Boroako herrigunetik irtengo du, Anaitasuna elkartearen egoitza paretik.

IK Iurreta kopistegia

IMPRESIO DIGITALA
DISEINU GRAFIKOA

**ESKOLA MATERIALEAN
ESKAITZA ZABALA**

Bidebarrieta, 1 · 48215 IURRETA
T: 946 811 070 · info@iurretakopi.com

IRAILAK 16

BIZI BERRIZ JAIA

OLAKUETA PLAZAN (FRONTOIAN)

19:00
Kiki, Koko eta Moko pailazoak
Katapultxispun festa

18:00etatik aurrera
Izozkiak denontzat!!
(amaitu arte)

DOAN

Informazio gehiago:
www.berrizkomerkataria.eus

ANBOTOK bisita gidatua antolatu du Angurretara Anbotokideentzat, irailaren 17rako

Bisitan parte hartzeko izen ematea datorren asteko eguaztenera arte dago zabalik. Urritik aurrera, aurretik izena emanda baino ezingo da bisitatu Angurretako sormen espazioa



Angurreta sormen espazioan dagoen eskulturerariko bat, atzealdean Eskuagatx mendia duela.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Angurreta sormen espazioa fase berri batean sartuko da laster. Iraila amaitu arte, astelehenera domekara bisitatu daiteke, ohiko moduan, baina urritik aurrera bisita gidatuetara mugatuko dituzte bisitak, aurretik izena emanda.

Fase berri horren atarian, ANBOTOK, Gerediaga elkarteagaz elkarlanean, Anbotokideei zuzenduriko bisita gidatua antolatu du irailaren 17ko domekarako; 12:00etan izango da. Bertan, Ta-

Anboto kideek datorren asteko eguaztenera arte dute izena emateko aukera. Plaza mugatuak daude

danori Yamaguchik Angurretarako propio egindako eskulturen gaineko argibideak emango ditu Angurretako sustatzaile Victor Arrizabalagak. Anbotokideek datorren asteko eguaztenera arte —irailak 13— dute izena emateko aukera, astekaria@anboto.org hel-

bide elektronikoaren bitartez. 20 laguntzako tokia dago eta lehenengo idazten dutenekin osatuko da zerrenda.

Irailean beste bisita gidatu bat ere egongo da, domeka honetan Urkiola Landa Garapen elkarteak egingo duena, hain zuzen ere. Bisitaren aurretik ibilbide bat egingo dute Mañarian zehar.

Urritik aurrera, taldeko bisitarren bat egin gura duena angurreta@gmail.com helbidearen bitartez ipini daiteke hartu-emanetan arduradunekin.

Musika, antzerkia, azoka eta gehiago Gertufest jaialdian

Izurtzako jaien barruko jaialdiak bigarren aldia egingo du gaur, 17:00etan hasita, Santo Tomas parkean

IZURTZA • J.D.

Iazko arrakastaren ondoren, Gertufest jaialdiak bigarren aldia egingo du gaur, 17:00etan hasita, Santo Tomas parkean. Izurtzako jaien barruko jaialdi honetan, ikuskizun hauek izango dira, besteak beste: Juana Geysler y la Imaginaria Banda Musical taldearen musika performancea, Oztopo ta Jarrai-ren txalaparta, Quico Pugés-en musika, Breaking Durangaldea taldearen break dance saioa, Naita Produkzioak konpainiaren Mito

izaki eta kondairak mikroteatroa, Trotamundos konpainiaren zirkua, Pablo Savalaren grafiti sorkuntza eta Les Sauvage DJa.

Jan-edanerako aukera ere egongo da, Iruntziren eskaintza beganoagaz (takoak, hanburgesak, taloak...) eta Johanaren enpanada argentinarrekin.

Arratsalde osoan, Santo Tomas parke inguruan antolaturiko azoka bisitatzeko aukera dago. Askotariko artisau produktuak egongo dira, 15 postutan banatuta.



Umeentzako askotariko jolasak ere antolatu dituzte.

Mallabiko jubilatuen elkarteak egunpasa antolatu du Irunen

Erromatarren garaiko Oiasso museoa bisitatuko dute, eta baita Xantalen ermita inguruan dagoen nekropolia ere

MALLABIA • J.D.

Mallabiko jubilatuen elkarteak urteko hirugarren egunpasa antolatu du irailaren 30eko zapatu-rako. Irunera joango dira. Goizean Oiasso museoa eta Xantalengo nekropolia bisitatuko dituzte eta, ondoren, herriko jatetxe batean bazkalduko dute. Egunpasa horretan izena emateko epea irailaren 22ra artekoa da.

Museoa Oiasso erromatar hirian sartzeko atea da. Egungo Irungo zorupean ezkutatua dago Oiasso erromatar hiria. Bidasoa ibaiaren bokalean, Hispania eta Akitaniaren arteko mugan, Oiasso baskoien portua izan zen Antzinaroan. Erromatar Inperioren garaian komunikazio eta

merkataritza zentro garrantzitsu bilakatu zen Hispaniako iparraldean. Museoan garai hartako aztarnak daude ikusgai.

Irailaren 30ko zapatuan joango dira Irunera. Izen ematea hilaren 22ra arte dago zabalik

Oiassoko nekropoli edo hilerriari dagokionez, Erdi Aroko Xantalen ermitaren barruan aurkitu zuten. Zenbait ontzi aurkitu zuten bertan. Barruan, hautsak, zeramikazko ontziak nahiz ilerako hezurrezko orratzak ere aurkitu zituzten, besteak beste.

Euskara Nepaleko gailurretara eraman zuten gazteen dokumentala ikusgai Otxandion

Irailaren 14an, 'Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere' ikus-entzunezkoa emango dute Otxandioko kultur etxean; gazte talde batek Nepalen bizitakoak kontatzen ditu



16tik 18 urtera arteko hainbat gaztek parte hartu zuten egitasmoan.

OTXANDIO • J.D.

Datorren asteko eguenean, 19:30ean, 'Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere' dokumentala proiektatuko dute Otxandioko kultur etxean. 16tik 18 urtera arteko gazte euskaldunen talde batek 2019an Himalaiara egindako bidaia kontatzen du dokumentalak. Felipe Uriarte mendizaleak gidatu zuen espedizioa, eta helburua, bertako mendiak ezagutzeaz gainera, Xerpa herria ezagutzea zen. Nepaleko Himalaian bederatzita xerpa gazteagaz elkartu eta haiekin batera egin zuten bidaia. Hizkuntza gutxituen arteko trukaketa egiteko eta 6.000 metroan ere euskaraz bizitzeko aukera izan zuten.



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

**UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



"Denda egundoko tresna izan da bizitzaz ikasteko; eskerrak eman gura dizkiet bezero guzti-guztiei"

Beatriz Telleria Lizundiak hamarkada ugari egin du Traña-Matienako Zubibitarte kaleko elikadura dendan lanean, auzotarrek kariñoz deitu izan dioten *Bearen denda*. Udan erretiroa hartu eta amaiera eman dio 1935etik zabalik egoniko familia negozioari. Esker ona adierazi gura izan die bezero guztiei



Beatriz Telleria Lizundia hunkitu egiten da dendak eta bezeroek emaniko guztia oroitzean.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Beatriz Telleria Lizundia Traña-Matienako Zubibitarte kaleko etxe batean jaio zen, 1957an, Petitetarren egunkari eta aldizkari dendaren gainean, lehenengo solairuan. Makina bat urte egin du kale bereko elikagai dendan lanean, auzotarrei

behar zuten guztia eskaintzen. Izan ere, denda txikia izanagaitik, Bearen dendan, Traña-Matienako auzotarrek kariñoz halantxik deitzen dioten saltokian, ez delako sekula frutarik, barazkirik, galletarik, jogurtik, gaztarik edo garbiketa produkturik falta izan. Orain, umetatik dendan lanean

ibili eta gero, Telleriak erretiroa hartu du.

Traña-Matienako betiko denda horietariko bat izan da zurea. Betiko-betikoa.

Bai. Denda hau amama Mariak zabaldu zuen. Lehenago aldame-

neko lokal batean zegoen denda; gerora pasatu zen gaurdainoko lokal honetara. Amama gazterik hil zen eta aitita Teodorok hartu zuen dendaren ardura. Aitita hil zenean, gure ama Angelesek hartu zuen negozioa, eta, azkenik, nik. Familiako hiru belaunaldi ibili gara hemen lanean.

Beraz, txiki-txikitatik ezagutu duzu denda.

Bai. Amari txikitatik laguntzen nion, 10-12 urte nituenetik. Durangora joaten nintzen ikastera, eta bueltakoan dendan laguntzen nion. Gora eta behera, atzera eta aurrera ibiltzen nintzen beti. Garai hartan ez zegoen itxiera ordu jakinik, eta akorduan daukat bezeroak etxepera etortzen zirela dendako zerbait behar zutenean. "Angeles!", oihukatzen zuten etxepetik. Ama jubilatu zenean neuk hartu nuen negozioa. 33 urte egin ditut hemen.

Zelako urteak izan dira?

Oso gustura egon naiz hemen. Gustuko lana izan da. Bezeroak primerakoak izan dira eta eurentariko asko familiakoak lez ditut. Hau kontatuta hunkitu egiten naiz. Askok euren bizitza kontatzen dizute. Haien penekin tristatzen zara, eta haien alaitasunagaz poztu. Konplizitate handia izan

dut bezero askogaz. Denerik egin dut hemen, negar zein barre. Asko eman didate.

Urte askoan dendak ez du errotulurik izan kanpoaldean. Baina mundu guztiak ezagutu du Bearen denda lez.

Bai. Lehen, *Angelesen denda* zen. Azken urteotan *Bearen denda*. Beti ahalegindu gara daukagun guztia ahalik eta ondoen eskaintzen. Eta bezeroek eurek ere asko eman digute. Jendearen maitasunetik asko ikasten da. Nik behintzat asko ikasi dut. Niretzat denda egundoko tresna izan da bizitzako kontuez ikasteko.

Seguru hainbat anekdota izan duzula hemen.

Adibidez, 1983ko uriolak ditut akorduan. Ura denda barruraino sartu zen. eta metro bat gora egin zuen. Produktu ugari galdu genuen eta garbiketa lanak itzelak izan ziren. Bestalde, gogoan dut kafea aletan etortzen zela lehen, eta amak kafea ehotzeko agintzen zidala, dena eskuz.

Zer esango zenieke zure bezeroei?

Guzti-guztiak eskertu gura ditut. Ez dut barbarik, hunkitu egiten naiz. Asko erakutsi didate. Asko ikasi dut eurekin. Askok egundoko penaz jaso dute dendaren itxiera, baina dena amaitzen da. Bizitza horrelakoxea da.

Paella eta tortilla txapelketak egingo dituzte bihar Muntzaratzeko jaietan

Irailaren 8tik 10era bitartean, Muntzaratz auzoko jaiak ospatuko dituzte Abadiñon

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gaurtik irailaren 10era bitartean, Muntzaratz auzoko jaiak ospatuko dituzte Abadiñon. Adin guztietarako kontzertuak, herri bazkariak, dantza erakustaldiak eta animazioa antolatu dituzte.

Gaur emango diete hasiera jaiak, 19:00etan, Donien Atxa jasota. Ondoren, Talde Batuak dantza taldeak saioa egingo du, eta 20:30ean parrillada egongo da.

Zapatuan, abadiñarrek ekitaldi ugari izango dute: paella txapelketa, tortilla txapelketa eta musika kontzertuak, besteak beste.

Domekan amaituko dituzte jaiak, bazkari herrikoiaz, umeentzako disko-festagaz eta txokolatadagaz.



lazko paella txapelketako argazkia.

Atxondoko nagusiek irteera egingo dute Pozalaguako kobazulora

Autobusa 8:45ean irtengo da Arrazolatik eta 9:00etan geldialdia egingo du Apatamonasterion

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Anbotoko Dama Nagusien Elkarteak antolatuta, Atxondoko nagusiek irteera egingo dute Pozalaguako kobetara, irailaren 16an. Autobusa 8:45ean irtengo da Arrazolatik eta

9:00etan geldialdia egingo du Apatamonasterion.

Pozalaguako kobazuloa Karrantzan dago, Armañongo naturar parkearen barruan. Koba hauek 1957ko abenduaren 28an aurkitu zituzten.



UDA KO 9. ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak
webgunera edo bidali
688635041 zenbakira
irailaren 15era arte

Informazio gehiago
www.anboto.org webgunean

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Smartbox-a.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik.
- Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.

Sukalki Eguna eta Esne Beltzaren kontzertua, besteak beste, jaietako bigarren asteburuan

Gaurtik domekara bitartean Ferixa Nausikoetako bigarren asteburua ospatuko dute elorriarrek. Bihar Sukalki Eguna eta Karrozen jaitsiera izango dituzte, besteak beste



Joan zen zapatuko txupinazoko argazkia. UNAI OLASO

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ferixa Nausikoetako lehenengo asteburu arrakastatsuen ondoren, elorriarrek prest daude jaietako bigarren astebururako. Bigarren asteburu hau ere ekitaldiz beterik dator. Gaur, esaterako, Toc eta Esne Beltza taldeen kontzertuak egongo dira, 22:00etan hasita, plazan.

Bihar, elorriarrek jaietako ekitaldirik tradizioletariko bat

izango dute: Sukalki Eguna. Ohitura duten lez, lehiaketa gastronomiko hau Aldatsekua parkeak hartuko du. Ehunka elorriar batuko dira bertan.

Sukalkiaren ondoren, 18:00etan, kuadrillek karrozen jaitsiera egingo dute Aldatsekua parketik. Eta gauean, 23:00etan, Golden Apple Quartet-en eta DJ Gorka Perezen txanda izango da.

Betalde, Gaztetxean Gozzue taldea eta Etxeko Djak arituko dira musika jartzen.

2023ko Ferixa Nausikoei amaiera emateko, 'Elorrioko kolore eta zapoak' ekimena egongo da domekan, Kainabera taldeak antolatuta. Ekitaldia 12:00etan hasiko da, Kanpokalen. 13:00etan herri kirolak egongo dira, eta 18:00etan bertso saioa Aldatsekuan.

Iurretako aurrekontu parte hartzaileen 2. fasea hasi dute

Iurretarrek egindako 170 proposamenen azterketa teknikoa egin ondoren, zortzi proiektu hobetsi dituzte

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak 2023ko aurrekontu parte hartzaileen 2. fasea hasi du. Lehenengo fasean, herriarrek euren proposamenak egiteko aukera izan dute eta 170 ekarpen batu ditu udalak. Denen azterketa teknikoa egin ondoren, zortzi proiektu hobetsi dituzte eta orain horien artean interesik handienekoak diren hiru proiektuak lehenetsi behar dituzte iurretarrek. Besteak beste, kalistenia

parkea egitea, Basetako bidegorria egokitzea, Euskaldunberriako jolasgunea berritzea eta hainbat tokitan iturriak ipintzea proposatu dute. Irailaren 17ra arte bozkatu daiteke.

Galdetegiak HAZen eta hainbat komertziotan ipinitako postontzietan utzi daitezke. Bestela, udalak bere webgunean prestatutako galdetegi digitala edo QR kodea ere erabili daitezke. Udalak 50.000 euroko aurrekontua lotu du.



Iazko aurrekontu parte hartzaileen bitartez, komun publikoa ipini zuten Amilburun.



Abadiñoko Beratu auzotik Garaiko Aiertzarako tartea.

Aiertzarako bidea konpontzeko lanak lizitaziora atera dituzte

Interesdunek irailaren 19ra arteko epea izango dute proiektuak aurkezteko. Aurrekontua 108.430 eurokoa da

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak lehiaketa publikora atera du Abadiñoko Beratu auzotik Garaiko Aiertzara doan herri bidea konpontzeko proiektua. Lizitazioa abuztuan kaleratu zuen, eta enpresa interesdunek irailaren 19ra arteko epea izango dute proiektu pro-

posamenak aurkezteko. Obrak 108.431,58 euroko aurrekontua izango du eta Abadiñoko Udalak kopuruaren %42 ordainduko du. Garaiko Udalak gainerako kopurua ordaindu eta obren zuzendaritza hartuko du bere gain. Lanak udazkenean hasi gura dituzte.

Garaiko nagusiak Zerainera joango dira irailaren 14an

Aizpeako meategiak bisitatuko dituzte, besteak beste

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Nagusien Elkarteko kideek ziurrenik urteko azken egunpasa izango dena antolatu dute datorren egunerako. Gipuzkoako Goierri eskualdera egingo dute txangoa, Zerainera, hain zuzen ere. Bertan, Aizpeako meategiak bisitatuko dituzte, besteak beste. Burdintzari loturiko meategiak

XI. mendetik XX. mendearen erdialdera arte ustiatu zituzten eta monumentu kategoria dute gaur egun. Horrez gainera, Larraondoko zerrategia ere bisitatuko dute. 14:15 aldera Mandiola tabernan bazkalduko dute, eta arratsaldean denbora libre izango dute. Zerainerako autobusak 9:00etan irtengo du, Garaiko plazatik.



Aizpeako meategiak. ZERAINGO TURISMO BULEGOA

Iurretako kofradiek Laixiar Eguna ospatuko dute domekan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako kofradiek euren egun handia izango dute domekan, Laixiar zelaian. Herriko sei kofradiek –San Marko, Fauste, Goiuri, Santa Maña, Iurreta eta Orozketa– XLVIII. Kofradi Eguna ospatuko dute. 12:00etan kofradien batzar nagusia egingo dute eta, ondoren, jai giroa nagusituko da Laixiarren.

Bazkaria eta erromeria

Kontu ematea amaituta, herriko dantzariak saioa egingo dute, eta Mikel eta Gorka trikitilariak bazkalarreko giroa berotzeko ardura hartuko dute. Igel txapelketa ere antolatu dute, eta, horren ondoren, Laixiarrera joandako iurretarrak bazkaltzeko batuko dira. Arratsalderako umeentzako jolasak antolatu dituzte, eta Naiara eta Izarra plaza taldeak erromeria giroa ipiniko du.

Frankismoko biktimak gogoratzeaz gainera, Memoria eta Giza Eskubideen lehenengo zikloa antolatu dute Berrizen

'Metalez eta ekinez hazia' ikus-entzunezkoa irailaren 11n proiektatuko dute, 19:30ean

BERRIZ • JONE GUENETXEA

Irailaren 11n, frankismo garaiko biktimak gogoratzeko ekitaldia egingo dute Berrizen, Felipe Urtiaga plazan, 18:00etan. 86 urte beteko dira Felipe Urtiaga eta José Agirre berriztarrak Derioko (Bizkaia) hilerrian fusilatu zituztenetik; urte bereko abuztuan, Gregorio Urkijo fusilatu zuten, eta urte batzuk geroago Fermin Aranguren hil zuten, Asturiasen (Espainia). Bestalde, 19:00etan, Txintxaun Kolektiboa antzerki taldeak *Beste munduan elkar ikusi arte* antzezlan estreinatuko du. Jarraian, 19:30ean, Berrizko Memoriaren eta Giza Eskubideen Taldeak ziklo berri bat martxan ipiniko du, Kultur Etxean. Egitarauan

hiru proiektio batu dituzte eta lehenengoa, *Metalez eta ekinez hazia* dokumentala, datorren irailaren 11n izango da, 19:30ean. Labayruk eta Berrizko Udalak elkarlanean ekoizturiko dokumentala da eta bere proiektioak herriko historia lantzea du helburu. 1950eko hamarkadatik aurrera Berrizko herriak izandako aldaketa kontatzen du. Nekazari herria izatetik industria herria izatera igaro zen Berriz. Proiektuaren bultzatzaileek azaldu dutenez, ekonomia ez ezik biztanleria ere hazi egin zen, eta herritarren bizimodua aldatu. Bideoak urte horiek guztiak laburbiltzen ditu. Ikus-entzunezkoan hainbat berriztarren testigantzak batu dituzte.

Torturari buruz

Torturari buruz Ander Iriartek zuzenduriko *Karpeta Urdinak* dokumentala proiektatuko dute irailaren 12an, 18:30ean. Dokumentalaren osterako, solasaldia antolatu dute. Iriarte ikus-entzunezkoaren zuzendaria, Julen Arzuaga *Oso latza izan da. La tortura en Euskal Herria* liburuaren koordinatzailea eta biktima bat batuko dira berbaldean.

Zikloa amaitzeko, *The lost soul of Siria* dokumentala emango dute, irailaren 13an, 18:30ean. Stéphane Maiterre eta Garance Le Caise zuzendarien lanak Sirian gertaturikoa mahaigaineratzen du. Atxilotu eta hil arte torturatu zituzten zibilen 27.000 argazki lapurtu zituen Siriako erregimeneko artxi-



Frankismoko biktimak gogoratzeko ekitaldia. Artxibo irudia.

bo sekretuetatik *Caesar* gako-ize-na duen militar batek. 2014an argitaratu ziren, baina ordutik nazioarteko justizia ezinean dabil Siriako Gobernuak auzipetzeko. Kasua ahaztuta geratuko delakoan, biktimen senideak eta aktibistak, *Caesar* bera eta Almudena Bernabeu abokatu espainiarra, besteak beste, egia eta justizia bilatzen ahalgintzen dabilza Europa osoko hainbat auzitegitan.

Orain arte, 1936 Berriz Gogoratzeko Kultur Elkarteak antolatzen

zituena memoriaren inguruko ekitaldiak. Taldeko kideek azaldu dutenez, elkarteak bertan behera uztea erabaki dute. Udalak arlo honetan erantzukizuna hartu behar zuela iritzita, alderdi politiko guztiak bildu zirela azaldu du Maite Arrizabalaga elkartearen kideak. Gauzak horrela, udalak aurten dei zabala egin du irailaren 11ren inguruko egitaraua osatzeko. Bartzar horietatik sortu da Berrizko Memoriaren eta Giza Eskubideen Taldea.

Zaldibarren Zaldi Eguna ospatuko dute zapatuan

Zaldiekin ibilaldia, Ranch Trail opena eta haurrentzako ekintzak dira zapatu honetan egingo dituzten ekintza batzuk



Arratsaldean modalitate biko lehiaketak egingo dira.

ZALDIBAR • J.D.

Zapatu honetan Zaldi Eguna ospatuko dute Zaldibarren, Olazar inguruan, egun osoan zehar zaldia eguneko protagonista nagusitzat hartuta. Zaldiei egindako harreragaz hasiko dute eguna, 09:00etan. Ondoren, 10:00etan,

Haurrentzat poneyak egongo dira, eta ferraketa eta zaindarien erakusketa denentzat

irteera bat egingo dute eguerdira arte. Goizean zehar poneyak egongo dira haurrentzat, 12:00etan, eta ferraketa eta zaindarien erakusketa denentzat, 12:30ean. Lehiaketak arratsaldean dira; 16:00etan Ranch Trail Novice izenekoak, eta 18:00etan Ranch Trail Opena.

Gaztelekua, euskara ikastaroak, Berbalagun eta Gurasolagun Zaldibarren

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Zaldibarko Gaztelekua martxan ipiniko dute urtero legez, 10etik 16 urtera bitarteko gazteentzat. Jarduerak barikua, zapatu eta domeketan izango dira, 17:00etatik 20:30era.

Irailaren 9an hasiko dira eta uztailaren erdialdera arte iraungo du Gaztelekua. "Gazteak hainbat jardueratan aritzea da helburua, hala nola txangoetan, eskulanean, tailerretan, lehiaketetan, berbalagun eta abarretan", azaldu dute udal arduradunek.

Euskara ikasten

Bestalde, irailaren 1etik 20ra euskara ikasteko matrikulazioa za-

balik dago AEKren laguntzagaz, eta udalak diruz lagunduko die ikastaroetan parte hartzen dutenei, ikasturte amaieran. Aukeratu daitezkeen ikastaroen artean, ikasketa-maila guztiak euskalduntzea, sareko ikastaroak, etorkinentzako ikastaroak eta guraso taldeentzakoak daudela azaldu dute Euskara Saitetik. Aurten, iazko moduan, erretiratuentzako talde bat sortuko dute, astean egun bitan, egunean 2 orduz. Horrez gainera, euskara praktikatzeko helburu duten Berbalaguna eta Gurasolaguna programak ere ipiniko dituzte martxan. Kasu honetan, euskaldun berriak euskaldun zaharrekin batuko dira.

ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



SOINUA MUSIKA IKASTEGIA Matrikula zabalik!

Estimulazio musikala
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIA,
GITARRA, KORUA



Kalebarrria, 1 - 1 Durango

946 030 338 - soinua@euskalnet.net

Zornotzako 20 komertzioek dendetan euskaraz aritzeko gonbitea egin diete herritarrei

Euskaraz barra-barra jasotzen duen pegatina ipini dute Zornotzako hainbat dendetako erakusleihoetan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak Euskaraz barra-barra kanpainari ekin diote elkarlanean. Kanpainagaz, herrietako establezimenduetan eskariak euskaraz egitera animatu gura dituzte herritarrak. Udalak ere animatu ditu herritarrak kanpainagaz bat egin eta herriko dendetan euskaraz aritzera.

Komertzioaren batek kanpainara batu gura badu, Zornotzako Udaleko Euskara Zerbitzuagaz ipini behar du hartu-emanetan. Behin kanpainara batuta, komertzioek Euskaraz barra-barra mezua jasotzen duen pegatina jasoko dute, euren dendetako erakusleihoetan ipintzeko.

Orain arte denda hauek batu dira kanpainara: Akiles osteopatia, Atertu kopiak, Bertoko ogia,

Borja Garamendi arkitektura estudioa, Clínica Dental Sergio Alonso, Furundarena pelukerak, Ganbera dekorazioa, Gutiérrez Botika, HikHazi akademia, Ibarra pentsuak, Ikusmen optika, M. Magunacelaya Hortz Klinika, Mule

Kanpainara batzeko, Zornotzako Udaleko Euskara Zerbitzuagaz ipini behar da hartu-emanetan

zapatadenda, Natur House, Oreka Osteopatia, Siurne ileapaindegia, Soinutxikie, Vulcanizados Iñaki, Zelaieta Hortz Klinika eta Zornotza Burdindegia.



Erakusleihoetan jarri dituzten pegatinak.

Durangaldea asteen

Idoia Otaduy berriztarra izango da EH Bilduren hautagaia Mankomunitaterako



DURANGALDEA | Idoia Otaduy izango da EH Bilduren hautagaia Mankomunitaterako. Otaduy zinegotzia da Berriren, 48 urte ditu eta Marcekin zuzendari kudeaketako laguntzailea da Eroski kooperatiban. Erronka berri honi "gogoz eta erantzukizunez" helduko diola adierazi du Otaduyik. Mankomunitateko udalbatza irail amaieran edo urri hasieran egingo da. Ekaineko hauteskundeetan EH Bilduk 15 ordezkari lortu zituen Mankomunitatean, EAJk 14 eta Abadiño Independenten Berriak eta Garai Herriko taldeak bana.

Isiotu kultur elkarteak Ane Lindaneren bakarrizketagaz ekingo dio ikasturte berriari

ABADIÑO | Emanaldia irailaren 14an izango da, 19:00etan, Abadiño Isiotu kultur elkartearen. Ane Lindane umoregile bilbotarra ezaguna da umorea egiteko duen "estilo azido eta zorrotzagaitik. Bere umorean ohikoak dira kritika soziala, balio feministak eta inkorformismoa topatzea", azaldu dute Isiotuko kideek ohar baten bitartez.



Kepa Ardanza abadiñoarra ardi txakurren Bizkaiko txapelkun 'Urbi' txakurragaz

ABADIÑO | Kepa Ardanzak eskualdera ekarri du Bizkaiko ardi txakurren lehiari dagokion txapela, Abadiño hain zuzen ere. Zapatuan Bizkaiko Artzain Txakur Txapelketaren 58. edizioa jokatzen Mungian, eta artzain abadiñoarrak txapela janztea lortu zuen 'Urbi' txakurragaz batera egindako lanari eskerrak.

Txapelketan 13 txakur lehiatu ziren euren artzainen esanetara. Horietatik lau eskualdeko ordezkariak ziren, abadiñoarrak guztiak. Kepa Ardanzak, Karlos Ardanzak, Jose Migel Etxebarriak eta Jose Angel Azkorbebeitiak lehenengo, bosgarren, hamargarren eta hamaikagarren egin zuten, hurrenez hurren, Urbi, Mendi, Soli eta Lutxi txakurrekin.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak



POSTAL BAT DESERTUAN
Julen Apella
(Balea Zuria)



CAYO HUESO
Oihane Amantegi
(Elkar)



ALFERRIKAKOAREN BALIOA
Nuccio Ordine
(Pamiela)

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

BURUARI KLIK!




HIEROGLIFIKOA

Beheko alfabetoaren laguntzagaz idatzi azpiko marran hieroglikoak osatzen duten esaldia.







TOPATU ITZAZU

Beheko irudian zazpi katu beltz daude ezkutatuta. Bazara gai denak topatzeko?



GURUTZEGRAMA

Bete gurutzegrama behean dauden irudien laguntzagaz.





ZEIN DA ZEIN?

Egiptoko jainko/jainkosa hauek animalien burua daukate.
Goian dauden animalietatik zeintzuk dira?




TOPATU BIKIAK

Hieroglifiko hauek guztiak bikiak dira bi izan ezik. Denak topatzeko gai izango zara?




SUDOKUA

Bete itzazu beheko irudiekin sudokuan hutsik dauden laukiak.



DOMINOA

Marraztu itzazu falta diren irudiak lauki zurietan.



Okm:

batzen gaituen distantzia

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA


- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan



> anboto
kide

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15 eko deskontua saio solteetan

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)



***Egin zaitez ANBOTOKIDE
eta baliatu abantailez!***



'Grimm anaien parkea'

ANTZERKIA **BERRIZ** :: Irailak 8

Ipuinek eta errealitateak bat egingo dute gaur, Berrizen

Garbitzaile bi dira *Grimm anaien parkea* ikuskizuneko protagonistak: Jeff eta Joe. Urte luzez itxita egon den parkea garbitzea dagokie, eta bertan Grimm anaien eskulturagaz topo egingo dute. Hortik aurrera, Txanogorritxo, Edurnezuri, Hansel eta Gretel, Loti ederra eta beste pertsonaia ezagun batzuk

langile bien bizitzan sartuko dira. Erre Produzioak antzerki konpainiaren ikuskizuna da *Grimm anaien parkea*, eta Gorka Mínguez eta Alfonso Díez dira obra honetako protagonistak. 17:00etan izango da emanaldia, Berrizjauregi lorategian. Euria eginez gero, eskolako patioan izango da.

Irailaren 8an

ABADIÑO jaiak

Donien Atxa jasotzea, 19:00etan, Muntzaratz auzoan.
Talde Batuak taldeko dantzarien saioa, 19:15etan.
Makro disko festa: Sound4, 20:00etan.
Paella eta tortilla lehiaketarako eta herri bazkarirako izen ematea, 20:00etan.
Parrillada Hazi Fundazioak lagunduta, 20:30etan.

DURANGO jaiak

Umeentzako ekintzak, 18:00etan, Ibaizabal auzoan.
Txupinazoa, 19:00etan.
Poteo herrikoia trikitilariekin, 19:00etan.
KSKA Seletorak, 21:30etan.
Akustik Covers, 21:30etan.

ELORRIO musika

'Luis Marianori omenaldia', **Andoni Martínez Barañano tenorraren eskutik**, 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA antzerkia

'Off The Record' (Atara Zarata), 20:00etan, Abadetxean. Iker Garatek eta Nuria Romerok zuzendutako antzezlan.

Irailaren 9an

ABADIÑO jaiak

Mozorro Eguna: Itsasoa, Muntzaratz auzoan.

Auto klasikoan

konzentrazioa, 10:30etan, Dorretxearen inguruan.
Umeentzako entzierroa, 11:00etan.
Mozorro lehiaketarako izen ematea, 12:00etan.
Puzgarriak, 12:00etan eta 16:30etan.
Lehiaketarako paellen aurkezpena, 14:00etan.
Ugasio txapelketa, 18:00etan, txosnan.
Apar festa, 18:30etan.
Lehiaketarako tortillen aurkezpena, 20:00etan.
Hellwatch, Ainke + Llama a la pasma, 20:00etan, Xirimiri tabernaren kanpoaldean.
Taiwan orkestra, 22:00etan.

DURANGO jaiak

Puzgarriak, 10:30etan, Ibaizabal auzoan.
Marrazki tailerra, 11:00etan.
Umeentzako sushi tailerra, 12:00etan.
Marmitako txapelketa, 12:30etan.
Gazta zozketa, 14:00etan.
Marmitakoen aurkezpena eta dastatzea, 15:00etan.
Mus txapelketa, 16:30etan.
Mauxitxa Txaranga, 18:30etan.
Banana Shake + The Grace of Dionysus + EK Ramirez & Iker Undersound, 21:30etan.

ZORNOTZA mendi martxa

Boroako Mendi Martxa (14 kilometro), 09:00etan. Izen ematea, 08:15etik 08:45era.
Kamiseten banaketa eta

hamaiketako

, 12:00etan.
Giza probak, 13:30etan.
Bazkaria, 15:00etan.
Eneko Larruzea Amezuaren kantaldia, 17:00etan.
Bolo txapelketa, 19:00etan.

ZORNOTZA ikastaroa

'Emakumeentzako defentsa pertsonala' (Iñaki Calvok zuzenduta), 10:00etatik 13:30era, Ixerbekoa kiroldegian.

ZORNOTZA musika

Zarzuela Errezitaldia, 20:00etan, Etxanoko Andra Mari elizan. Eleizatan kultur egitaraua.

Irailaren 10ean

ABADIÑO jaiak

Joko parte hartzaileak, 12:00etan, Muntzaratz auzoan.
Bazkari herrikoia, 14:30etan.
Disko festa: Arima, 18:00etan.
Txokolatea, 19:30etan.

ZORNOTZA musika

Ana Carla Maza, 19:00etan, Bernagoitiko San Miguel elizan. Eleizatan kultur egitaraua.

Irailaren 11n

BERRIZ dokumentala

'Metalez eta ekinez hazia' dokumentala, 19:30etan, Berrizko Kultur Etxean. Zinema, Memoria eta Giza Eskubideen lehenengo zikloa.

Irailaren 12an

BERRIZ solasaldia

'Karpeta urdinak' dokumentala (Zuz: Ander Iriarte), 18:30etan, Berrizko Kultur Etxean. Solasaldia: Ander Iriarte, Julen Arzuaga ('Oso latza izan da. La Tortura en Euskal Herria' liburuaren egilea) eta biktima bat. Zinema, Memoria eta Giza Eskubideen zikloa.

Irailaren 13an

BERRIZ solasaldia

'The Lost Souls of Siria' dokumentala (Zuz: Stéphane Maiterre-Garance Le Casine), 18:30etan, Berrizko Kultur Etxean. Solasaldia Amnistia Internazionalerako kide baten eskutik. Zinema, Memoria eta Giza Eskubideen zikloa.

Irailaren 14an

ABADIÑO bakarriketa

Ane Lindane, 19:00etan, Isiotu elkartean.

Irailaren 15ean

BERRIZ kale antzerkia

'Agurea, urpekaria eta itsasoa' (Hortzmuga), 17:00etan, Berrizjauregi lorategian (euria bada, eskolako patioan).

ZALDIBAR kale antzerkia

'Jacuzzi' (Nimú), 18:00etan, udaletxeko plazan.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• La Monja 2

barikua 8: 18:30 / 21:00
zapateria 9: 16:45 / 18:15 / 21:30
domeka 10: 17:00 / 20:00
astelehena 11: 18:00 / 20:15
martitzena 12: 18:00 / 20:15
eguzartena 13: 19:00

• Verano en rojo

barikua 8: 18:30 / 21:00
zapateria 9: 19:00 / 21:30
domeka 10: 19:30
astelehena 11: 18:00 / 20:15
martitzena 12: 18:00 / 20:15
eguzartena 13: 19:00

• El valle de la esperanza

barikua 8: 18:00
zapateria 9: 20:30
domeka 10: 19:30
astelehena 11: 18:00
martitzena 12: 18:00
eguzartena 13: 19:00

• Campeonex

barikua 8: 20:00
zapateria 9: 19:00
domeka 10: 17:30
astelehena 11: 20:15
martitzena 12: 20:15

• Ninja Turtles: Caos mutante

zapateria 9: 16:45
domeka 10: 17:00


:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• Oppenheimer

barikua 8: 20:00
zapateria 9: 20:00
domeka 10: 20:00
astelehena 11: 20:15

• Abentura erraldoia

zapateria 9: 17:00
domeka 10: 17:00



Elorriko jaiak 2023

Irailak 8, barikua

09:30 Elorrio zirkularra (Plaza-San Roke-San Jose-autokarabana gunea-Arraiarte-San Agustin-Kurutxondo-Plaza-Kiroldedia-Txanberi-Angio- Gazeta-Gerbilla-Aldape-San Juan-Zenita-Argiñeta-Lekeriketa-Kurutxondo-Plaza). Antolatzailea: Durangaldeko Bizidun Nagusien Elkarte

11:30 Hildako jubilatuen omenezko meza. Sortzez Garbiaren Basilika.

13:00 Kopaua Elorriko jubilatuentzat. Aldatsekuan.

16:00 Gazte Uharte: Zintzilik emozioen laborategia.

18:00 Elorriko buruhandiak. Plazan.

18:00 Txixarrillo Trio Serenade, jubilatuentzako dantza. Aldatsekuan.

18:00 Areto futbola - Elorrio + talde bi, gizonzkoen triangularra. Antolatzailea: Elorriko Buskantza FKE.

19:00 Hortzmuga "Agurea, urpekaria eta itsasoa", kale-antzerkia. Urarka.

Pintxo-potea Atxondoko Harrera Herriaren eskutik.

20:00 Andoni Martínez Barañano "Homenaje a Luis Mariano" kontzertu liriko. Arriolan.

21:00 LVII. idi proba txapelketa. Probalekuan.

22:00 Kontzertua: Toc eta Esne beltza. Plazan. Antolatzailea: Txosnen Batzordea

22:15 Suzko zezena. Plazan.

00:00 Stepi eta lagunak. Gaztetxean.

Irailak 9, zapatua

08:00 Aldatsekua Sukalki eguna. Antolatzailea: Iturrizoro elkarteartea. Zatoz mozorroa jantzita!

11:30-14:00/16:30-19:00 Haur parkeak eta txu-txu tren.

12:30 Fanfarrixo Sukalkia animatzen. Aldatsekuan.

13:00 Bitsaren jaia. Esteibarlanda.

16:00 Andoni Ollokiegi, kontzertua. Aldatsekuan.

18:00 Txokolatada. Laguntzailea: La Esperanza nagusien elkarte. Plazan.

18:00 Karrozen jaitsiera. Aldatsekua.

18:00 Disko Muzio's. Plazan.

21:00 LVII. Idi proba txapelketa. Probalekuan.

22:15 Suzko zezena. Plazan.

23:00 DJ Gorka Pérez. Plazan.

23:00 Golden Apple Quartet "Gran selección de fiestas 2023". Urarka.

23:00 Gozzue eta Etxeko DJak. Gaztetxean.

00:00 Euskal dub etxea. Txosnagunean.

Irailak 10, domeka

12:00 Elorriko kolore eta zapoak. Antolatzailea: Kainabera GKE. Kanpokale.

11:30-14:00/16:30-19:00 Haur parkeak.

13:00 Herri kirola: Alex Txikon, Hodei Ezpeleta, Julen Mendieta eta Bihurri aizkoran, Karlos Aretxabaleta Iparraldeko jokoetan eta Ane Zinkunegi harri jasotzen. Plazan.

18:00 Bertso saioa: Julio Soto, Alaia Martin, Iruri Altzerreka eta Igor Elortza. Gai jartzailea: Maite Berriozabal. Aldatsekuan.

19:30 Esperanza Mara & Colectivo Vella Escola "Opera Break" dantza eta musika. Plazan.

Irailak 11, astelehena

21:00 LVII. idi proba txapelketa. Probalekuan.

Izurtzako jaiak 2023

Irailak 8, Barikua

10:00 Kalejira Jaizalegaz.

17:00 Gertufest, Santo Tomasen.

Irailak 9, Zapateria

19:00 Tortilla txapelketa.

20:30 Tortillak aurkeztea.

21:30 Herri afaria.

22:30 Xaibor.

Irailak 10, Domeka

10:00 Kalejira Jaizalegaz.

11:00 Umeen jolasak plazan.

13:30 Igel txapelketa plazan.

14:30 Jubilatuen bazkaria.

17:30 Mus txapelketa Argintxun.

17:30 Partxis txapelketa plazan.

2023 · 2024



IZEN-EMATEA: Irailak 14-22 erroldatuak
20-22 ez erroldatuak



BIBLIOTEKA



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA
ODONTOLOGIA PEDIATRIKOA · PADI · HORTZETAKO ESTETIKA
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - ucdental@gmail.com

RPS: 145-13

anboto
kide

Anbotokideen txokoa

IRAILEKO ZOZKETAK




Herria tabernan bi pertsonentzako gosaria. Durango.



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.



Angurreta harrobiko arte espazioa ezagutzeko bisita gidatua irailaren 17an. **



Teneré-ko zuhaitza antzerkirako sarrera bikoitza. Irailaren 17an, San Agustinen.



Lasala 10 urte dantza ikuskizunerako sarrera bikoitza. Irailaren 22an, Arriolan.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

**Izena emateko, astekaria@anboto.org helbidera idatzi.

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaituz Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



“Gure gorputzagaz, ahotsagaz lan egiten dugu, gu ikusteko sarrera bat ordaindu duen publikoaren aurrean”

Paule Mallagarai 'Una rubia muy legal' musikala estreinatuko du hilaren amaieran, Madrilen



Paule Mallagarai Urzainki

Aktorea, dantzaria, abeslaria

DURANGO | 1997

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Paule Mallagarai durangarrak hiru urte daramatza Madrilén bizi izaten eta lan egiten. Antzerki musikalen gunerik garrantzitsuenetariko bat da eta hori dela-eta garrantzitsua deritzo han egoteari. Irailean 'Una rubia muy legal' antzezlana estreinatuko du.

Estreinurako gogotsu?

Bai, oso gogotsu. Musikalak izugarrizko arrakasta izan du Broadwayn eta West Enden, eta nahiz eta gurea bertsiotze italiarra den, publikoak asko gozatuko duela uste dut. Oso komedia dinamikoa da, koreografia eta abesti liluragarriekin, eta obraren mezuak ikuspuntu feminista oso interesgarria gordetzen du. Entsegu prozesuan inoiz baino gehiago nabil barre egiten, izerditan blai amaitzen dugu eguna eta gure esfortzuak fruituak emango ditu, ziur.

Zelakoa da zure pertsonaia?

Nire pertsonaia Brooke Wyndham da, Estatu Batuetako fitness munduko emakume oso famatu bat. Nortasun handikoa da, energia asko transmititzen duena eta bere ingurukoak norberarengan sinestera bultzatzen dituena. Bere senarra hiltzen ahalegintzen dira eta protagonistaren laguntzaz kartzelatik irteten ahaleginduko da,

baina prozesua oztopatuko duen itzelezko sekretu bat gordetzen du. **Zeri buruzkoa da obra?**

Obrak Elle Woodsen istorioa kontatzen du, bere itxuraz etengabe kezkatuta eta glamourrez inguratuta bizi den Malibuko neska ilehoriarena. Warner, bere mutil-laguna eta senatari dinastia bateko ondorengoa, Harvardera doa zuzenbidea ikastera. Warner-ek Ellegaz duen hartu-eman bertan behera uztea erabakitzen du, ilehorigia delako. Ellek ez du gura Warner urrundu dadin eta bere xarma eta adimena erabiltzen ditu berak ere Harvarden zuzenbidea ikastea lortzeko. Bertara heltzean, baina, egoera latzagoa da: Warner-ek beste neska bat topatu du, ikaskide eta irakasleek ez dute Elle den modukoa onartzen, eta inork ere ez du berarengan sinesten. Baina esfortzu handiagaz, bere klixtea apurtzea lortuko du.

Zein da zure koreografiarik gustukoena?

Nire koreografiarik gustukoena *Crimen parar* da, nire pertsonaia aurkezten duena. Bigarren zatia zabaltzen du eta sei minutuz sokasaltoan eta abesten nabil, biak batera. Publikoarentzat oso harrigarria dela uste dut, eta guri begiratzeagaz bakarrik nekatuko

direla uste dut. Saltoka ibiltzeak asko zailtzen du arnasketa kontua, eta oso gogor entrenatu gara inork ahaztuko ez duen koreografia hau aurrera ateratzeko.

'Mamma mia!' musikalean ere arituzara. Zelako esperientzia izan da?

Oso esperientzia aberasgarria izan da, asko ikasi dut bertan. Egunaren arabera, Sophie protagonistarena egiten nuen, edo Ali eta Lisa pertsonaia. Publikoa egunero emozioztatzen zen gugaz, eta bizitzan jaso ditudan txalorik beroenak jaso ditut bertan. Izugarriko *training*-a izan da eta oso ondo prestatu nau *Una rubia muy legal* musikala konplexuari aurre egiteko.

Zelan Madril aldetik?

Hiru urte daramatza bertan bizitzen eta argi daukat oso leku aproposa dela musikaletan aritzeko. Mundu mailan 3. postuan dago, Broadwayren eta West Enden atzetik. Hala ere, pertsona lasaia naiz, naturaz ingururaturuta egotea gozatzeko duena, eta igartzen dut Euskal Herriko bizimoduaren falta. Etorrizunean Durangon nutrizionista lez lan egiten ikusten dut neure burua. Antzerki musikaletan lan egitea sakrifizioz beteriko bizitza da. Gauero, gure gorputzagaz, ahotsagaz eta sentimenduekin lan egiten dugu, gu ikusteko sarrera bat ordaindu duen publiko baten aurrean, eta batzuetan gatz egiten da ehuneko ehuneko egon beharra kudeatzea. Gainera, antzerki musikaleko produkzio erraldoi hauetan oso neurtuta dago dena eta engranaje baten moduan lan egin behar dugu denok.

Dantza, interpretazio eta musika formakuntza duzu. Zeinetan aritzen zara gusturago?

Dantza, kantua eta interpretazioa nire eguneroko lan erremintak dira. 6 urteagaz hasi nintzen dantzan Durangoko L'Atelier eskolan. Bartolome Ertzilla kontserbatorioan biolontxelo jotzen ikasi nuen eta Agurtzane Mentxakagaz kantu klaseak jaso ditut. 18 urteagaz Arte Dramatikoa karrera egitera joan nintzen Sevillara, eta Madrilén Central de Cinen ikus-entzunezko interpretazio masterra egiten nuen. Ahotsagaz maitasun-gorrotu hartu-eman dut, ez delako erraza instrumentua erabiltzen ikastea, baina abesteak une politak ere eman dizkit. Inoiz ere ez dut ahaztuko 25 urte egiten nituenean *Mamma Mia!* protagonista lez abestean sentitu nuen.



Liburua osatzen parte hartu duten kideak, lurretako elizpeko mahaian.

Iurretako kofradien memoria bizia jaso dute liburu eta bideo banatan

Jon Irazabal historialariak eta Markel Onaindia kazetariak ondu dute liburua. Irailaren 14an, eguenean, jendaurreko aurkezpena egingo dute Goiuria kulturgunean

ONDAREA • EKAITZ HERRERA

Gerediaga elkarteak eta Iurretako kofradiek *Iurretako kofradiak. Iraganari etorkizuna ematen* izeneko liburua aurkeztu dute. Liburua Jon Irazabal historialariak eta Markel Onaindia kazetariak idatzi dute elkarlanean. Datu historikoak aletzeaz arduratu da lehenengoa, eta lekukotasunak, anekdotak, gertakariak, ekarri ditu bigarrenak.

Irazabalek kofradien iragana idatzita uztearen garrantzia azpimarratu du. "Izan ere, kofradien historia ahozkoaren oinarritu da neurri handi batean. Eta ahozko

historia hori galdu egin dugu hein batean. Oso gutxi ikerturiko gaia da" aitortu du. Hori dela eta, testigantza jaso dituzte "lekukoak joan orduko". Markel Onaindiak bideoan hartu ditu lekukotasunok, eta kofradien historian izandako gertakari eta anekdotak batu. "Adibidez, kofradien basoetatik ateratzen zen etekin ekonomikoa gakoa izan zen telefono linea ekartzeko, edo auzoetan funtzio garrantzitsuak duten txoko gastronomikoak sortzeko", esan du Onaindiak.

Liburua dokumentu historikoen, kartel zaharrek eta hainbat

argazkirekin jantzi dute. Make-tazio lanak Eñaut Aiertzaguenak ilustratzaileak egin ditu. Liburuko hitzaurrea Gerediaga elkarteak Izaskun Ellakuriagak idatzi du.

Liburua domekan egitekoa den Laixiar Zelaiko jaian salduko dute, bost euroan. Astelehenetik aurrera, Iurretako kopistegian egongo da eskuragarri. Irailaren 14an aurkezpen ekitaldia egingo dute. Hiru saio izango dira, 17:00etan, 18:30ean eta 20:00etan. Markel Onaindiak egindako 25 minutuko ikus-entzunezkoa ere proiektatuko dute bertan.

Izaro mallabitarrak lan berria eta bira iragarri ditu

'Cerodenero' deituko da lan berria; 2024ko urtarrilean hasiko du aurkezpen bira, Bilboko Euskaldunan

MUSIKA • A. M.

"Aro berri bat. Bueltan naiz" esanda iragarri ditu Izaro Andres musikari mallabitarrak disko berria eta bira berria. Abenduaren 8an kaleratuko du *Cerodenero* disko berria; artistaren esanetan, lan berria kontzeptuala izango da, eta pop, folk eta elektronika ukituak edukiko ditu, besteak beste. Aurretik, *Om* (2016), *Eason* (2018) eta *Limones en invierno* (2020) lan arrakastatsuek kaleratu ditu mallabitarrak. Arrakasta horren erakusle, mallabitarrak 6.000

lagun baino gehiago batu zituen Donostiako Belodromoan iazko maiatzean eman zuen kontzertuan.

Musikariak 2024ko hasieran ekingo dio aurkezpen birari. Urtarrilaren 2an Bilboko Euskaldunan emango du kontzertua, eta 3an eta 4an emanaldi bikoi-tza egingo du Donostiako Kur-saalean. Ondoren, Bartzelonan, Iruñean, Gasteizen eta Sevillan emango ditu kontzertuak. Lehenengo hiru kontzertuetarako sarrerak salgai daude jada.



Izaro Andres.

Gai librean

Diagon kalekka

Mundua orohar polarizatua dagoela ez da nobedadea. Polarizazio maila berri bat sortu dela esango nuke: imajinazioarena. Gizartearen zati bat imajinazioaren oso zalea da, maite du inoiz gertatuko ez diren kontuak kontatzea. Beste zati bat, ordea, ez da imajinatu zalea. "Zertarako hasi behar gara sekula gertatuko ez diren kontuetan pentsatzen?", diote arrazoitzaileak. Bada, animatzen zaitut hurrengo lerroetan imajinatzea.

Zure herrian zaude. Berrogei gradu, iluna eguna igarotzeko argia da. Zure herritik alde egin gurako zenuke, egun batzuetarako, baina ezin duzu. Ez da ez duzula gura, ezin duzu. Gelako lau hormek gertutik inguratzen zaituzte, konturatzen zarenera arte gelako lau hormak etxe osoan dituzun lau hormak direla. Diruz hordi zeundelakoan,

Badirudi alde zaharra Diagon kalekka dela, "beste" herritik "urrun" dagoen kalea, muggle edo zombientzat ikusezina dena

egarriz hiltzeko zorian. Herriaren berri izateko modu bakarra atea zabaldu eta geroago igo beharko dituzun 55 eskailek jakitea da.

Atera zara, gaur egun handia zure herrian, itsasora begira egongo dira herritarrek gaur eta datorren domekan. Txinatarrei barre egiten zenien eguzkitan guardasola erabiltzen dutelako. Orain ulertzen duzu zergatik den guardasola. "Bertara zoaz bizitzera? Beste herri batzuen ondoan, euskara dezente entzuten da bertan", esaldia bueltaka duzu, baiez-tapen hori non egiaztatu ezinik. Itsasora begira egon beharko lukete herritarrek baina ez da horrela; beraz, zalantza egi-

ten duzu: ez dago itsasorik, ala ibilian ikusten dituzun zombie izozkidunak ez dira herritarrek? Argi duzu erantzuna bigarrena dela; hortaz, herritarren bila zoaz. Alde zaharrera joatea erabaki duzu. Sarreran horma batean guardasolarekin "tak, tak tak" jo, eta horma mugitu da. Eta hara, herritarrek. Badirudi alde zaharra Diagon kalekka dela, "beste" herritik "urrun" dagoen kalea, muggle edo zombientzat ikusezina dena. Eskerrak Iggy Popek BBC-n duen podcasteko saio bat Brigade Loco talde gipuzkoarraren abesti batekin hasi duela, horrek salbatu du herria.

Imajinatzea animatu zaitut, baina ez da fikzioa izan, egia esan. Domekan Donostiara joatea besterik ez duzu. Hiria zombiez beterik dago, baina itsasora hurbildu ahala, kolorez jantziko da. Kontxa ez ezik, Euskal Herria benetan koloreztatzen duten herritarren kolorez.



Igor Galarza Intxausti
Kazetaria

ANBOTOk zuzenean emango du Sorginen Lasterketa, zapatu honetan; aurten hainbat favorito egongo da

Antolatzaileek Twitch bidez emango duten lasterketa 'anboto.org' webgunean ikusi ahalko da; Oier Ariznabarretak eta Ander De Luisek esatari lanak egingo dituzte



lazko lasterketako argazkia.



lazko lehen hiru sailkatuak.

MENDI LASTERKETA • M. ZUAZUBISKAR

Irailagaz batera hemen da Euskal Herriko mendi korrikalarien artean ospetsu egin den eta erreferente den Sorginen Lasterketa. Zapatuan, lasterketaren 16. aldia jokatu da eta aurten ere, iazko moduan, lasterketa zuzenean jarraitzeko aukera egongo da, Twitch bidez zein ANBOTOn webgunean. 9:00etan hasita, Oier Ariznabarreta eta Ander De Luis korrikalariak komentatu dituzte zortzi kameragaz grabatuko diren irudiak. Errealizazio gunea Axpen bertan egongo da.

Ibilbideari dagokionez, azken edizioetako bera izango dute ko-

rrikalariak: 21 kilometro eta 1.700 metroko desnibel positiboa dituen ibilbidea. Korrikalariak 9:00etan

Azken edizioetako ibilbide bera izango dute: 21 kilometro eta 1.700 metroko desnibel positiboa

irtengo dira, Axpeko plazatik, eta Mendigoikoa jatetxe ingurura igo eta han baso bideetan sartuko dira. Larrano azpitik Arrazolara

joango dira, eta kaltzadan gora Zabalandiko leporaino. Behin Zabalandin, Anbotorako bidea hartuko dute. Pagozelaitik Asuntzara jaitsi, eta handik zuzenean Guenzelaira joko dute. Axpeko helmugara heldu aurretik, baina, korrikalariak Artolako lepora igo beharko dute.

Hainbat favorito

Gutzira, 350 parte hartzaile izango dira aurtengo Sorginen Lasterketan. Maiatzean zabaldu zuten izen ematea eta dortsalak berehala agortu ziren. Axpeko irteera puntuan egongo diren ko-

rrikalari guztien artean, hainbat favorito nabarmendu daiteke. Emakumeetan, Lide Urrestarazu

Gizonezkoetan, iazko garailea da lasterketa irabazteko favorito nagusia: Gontzal Murgoitio

eta Irati Zubizarreta gipuzkoarrak, Oihane Unzalu berriztarra eta Garazi Sampedro atxondarra daude hautagaien artean. Gizo-

nezkoetan favorito nagusia iazko garailea da, Gontzal Murgoitio elorriarra. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, azken orduko baja garrantzitsu bi izango dira aurtengo edizioan: Aitor Ajuria eta Markel Urigoitia otxandiarrak. Lesionatu egin dira biak, eta ezinongo dute parte hartu.

Hala ere, antolatzaileen berbetan, Gontzal Murgoitio elorriarrak aurkari gogorak izango ditu aldamenen artean. Irazu Aranburu mallabitarra, Asser Alonso atxondarra eta Ander Gerrikaetxeberria zornotzarra aipatu dituzte, besteak beste.



Modalitate mistoko taldeak brontzeko domina irabazi zuen.

Goiherri-Abadiño taldeko tiralariak domina bigaz bueltatuko dira Suitzako munduko txapelketatik

23 urtez azpiko mailan heldu dira domina biak; bata modalitate mistoan, eta bestea emakumeetan

SOKATIRA • J.D.

Abadiño Sokatira Taldeko zortzi tiralarik Suitzako munduko txapelketan parte hartu zuten joan zen asteburuan. Goiherri taldeko tiralariak osatu zituzten taldeak, Goiherri-Abadiño izenagaz. Domina bi irabazi zituzten, zilarrezko eta brontzeko bana, biak 23 urtez azpiko mailan. Lorpen handia da, 25 herrialdetako 98 talde eta 1.280 kirolaritik gora aritu zirela kontuan hartuta.

Zilarrezko domina 500 kilora arteko emakumeen taldeak irabazi zuen. Irati Abarrategi, Olatz Abarrategi eta Amaia Uriarte abadiñarrek osatu zuten eskualdeko ordezkariak. Saikapen fasean lan bikaina eginda heldu ziren finalera. Finalean, tiraldi biak galdu zituzten urrezko domina irabazteko favoritoa zen Taipei (Taiwan) Jingmei Dai Shi Dai taldearen kontra. Edozelan ere, euskal ordezkariak zilarrez-

ko domina lortu zuten, sekulako maila erakutsita.

Brontzeko domina modalitate mistoan heldu zen. Talde horretako partaide izan ziren Abadiño Sokatira Taldeko Maui Mandaluniz, Martxel Azkorbebeitia, Irati Abarrategi eta Olatz Abarrategi.

Aipaturiko bost tiralarietaz gainera, Ane Abarrategi, Xabier Irazola eta Asisko Arruabarrena ere aritu ziren munduko txapelketan. Hauek nagusien mailetan ibili ziren tiraka.

Promesarik onenak batzen dituen Olazar pilota txapelketan Faben Ituarte eta Aingeru Bernaolak parte hartuko dute

Zaldibarko pilota txapelketa datorren egunean hasiko da eta eskualdeko pilotari bik parte hartuko dute: Faben Ituarte atxondarrak lau eta erdian, eta Aingeru Bernaola mañariarrak binaka. Urriaren 12tik aurrerako jardunaldiak zuzenean emango dituzte eta ANBOTOk webgunean ere jarraitu ahalko dira



Jardunaldi guztiak Zaldibarko Olazar pilotalekuan jokatu dira.

Lau eta erdian arituko diren 16 pilotariak ere ez dira nolanahi-koak. Promesarik onenatarikoak etorriko dira: Unai Amiano, Iker Eiguren eta Ekhi Irribarria, besteak beste. Datorren egunean, Erkiagak eta Kortazarrek neurtuko dituzte indarrak kaiolan. Faben Ituarte, seguruenik, urriaren 12an izango du lehenengo kanporaketa.

Zuzeneko emankizuna

Urriaren 12tik txapelketa amaitu bitartean dauden jardunaldi guztiak Internet bidez —'Youtube Zaldibarko Udala' kanalean— zuzenean jarraitu ahal izango dira. Iazko esperientzia positiboa izan zen eta aurten bide beretik jarraitzea erabaki dute Zalduako arduradunek. ANBOToren webgunean ere ikusi ahalko dira urriaren 12tik finalera arteko jardunaldi guztiak.

Iazko moduan, kalitatezko emankizuna izango da: lau kamera, errealizazio profesionala, errepikapenak... Telebistako emankizunekin konparatu daitekeen produktua da. Esatariei buruz ere beste hainbeste esan daiteke. Aritz Gallastegi kazetariak kontatuko du kantzax gertatzen den guztia eta Enrike Agirrebeitiak egingo ditu komentariak lanak.

PILOTA • J.DERTEANO

Promesarik onenak batzea zuten helburu, eta lortu dute. Gatxa da karteldegia erakargarriagoa osatzea. Biharko izarrek Zaldibarko 36. Etorkizuneko Olazar Pilota Txapelketan parte hartuko dute datozen hileetan. Irailaren 14tik aurrera

egunero egongo dira jardunaldiak, 21:30ean hasita. Binaka eta lau eta erdian partidu bana izango da ikusgai, abenduaren 31ko finale-ra heldu arte.

Durungaldeak ordezkari bi izango ditu: Faben Ituarte atxondarra eta Aingeru Bernaola mañariarra.

Bernaolak lehenengoz parte hartuko du Olazarren, eta datorren egunean bertan izango du estreinaldia, txapelketako lehenengo jardunaldian. Atzelari mañariarrak Aurrekoetxea lemoarra izango du aurrelari. Biek elkarregaz bikote sendoa osatzen dute. Ariztegi eta Azpetegia

nafarrak izango dituzte aurkari. Apeztegiak kadete adinagaz —16 urte— jokatu du Zaldibarren. Txapelketako 16 bikoteen artean batzuk faboritoagoak dira. Multzo horretan Zubizarreta-Lizeaga, Ormaetxe-Apeztegia eta Murua-Loza bikoteak nabarmendu daitezke.

Jokaldia

Lasterketa bertan behera

Mendiko korrikalaria irrikan egoten da lasterketa eguna noiz etorriko. Egun ederra izaten da, eta, lasterketa etxetik urrun bada, asteburua pasatzeko aprobeztatzen dute askok, edo oporrak antolatzeko.

Han-hemen antolatzen diren probak ondo irteten dira normalean, arrakastatsuak izaten dira partaidetza zein giro aldetik, eta horietan berriro parte hartzeko gogoia izaten dugu sarritan. Baina zer gertatzen da lasterketa edo dena delako proba bertan behera geratzen bada? (Normalean eguraldi txarragatik izaten da).

Asteburu honetan gertatu zait, Panticosan, Valle de Tena mendi lasterketan. DANA denboralearen ondorioz, lasterketako antolatzaileek erabaki



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

Lasterketa biak bertan behera geratu ziren. Eta eskerrak, ezertarako ere ez zegoelako giro! Gutxiago mendian ibiltzeko

zuten zapatuko lasterketa biak, 4K (maratoia) eta 8K (ultramaratoia), bertan behera uztea. Eta eskerrak, zapatuan ezertarako ere ez zegoelako giro! Gutxiago mendian ibiltzeko. Halakoe-tan, denen segurtasuna bermatzea da beti lehentasuna, zoritxarrari batere zirrikiturik utzi barik, eta ondo harturiko erabakia da.

Eguraldi txarrak behin baino gehiagotan baldintzatu du kirol proba bat baino gehiago. Aurten, esa-

terako, Zegama Aizkorri maratoian aldatu egin dute ibilbidea, eta alderik arriskutsuena kendu. Urte batean, Sorginen Lasterketak Anbotori bisita egin barik geratu behar izan zuen. Italian ere geratu naiz inoiz probako tontorrek zapaldu barik eguraldi txarragatik, baina hala izan behar du. Mendian, eta beste edozein kirol diziplinan, arriskuak saihestu egin behar dira, eta eguraldi txarraren ondorioz antolakuntzakoek harturiko erabakiak onartu eta zentzuz jokatu, kirolak beste albiste txarrik ekarri ez dezan. Txinako mendi lasterketa batean 21 lagun hipotermiaz hil zireneko albistea, adibidez, txingorraren, haize bortitzen eta euri izoztuaren ondorioz. Edo oraintsu Irlandako Ironman batean triatleta bi hil direneko trumoi-ekaitz baten ondorioz.

Argazkiak: UNAI OLASO



Jairik jai!

Elorrioko Ferixa Nausikoak



Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto

Botikak

BARIKUA, 8 · 09:00-09:00

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 9 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

BALENCIAGA,
ZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONDO 22 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 10 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 11 · 09:00-09:00

MUGICA,
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 12 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 13 · 09:00-09:00

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 14 · 09:00-09:00

DE DIEGO,
INTXAURRONDO 22 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**

Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozategia
gozatugozotegia



Ondo pasau zure urtegunean eta ez zaitetz ahaztu cava eta pastelak ekartzeaz. Zorionak



Manexek 6 urte egin zituen irailaren 4an. Familiakoaren artean txokolatada haundi bat eginda



Malenek 12 urte egin zituen irailaren 1ean. Zorionak etxekoan partez eta urte askotarako,



Abuztuaren 18an Jurgik 6 urte egin zituen eta Suharrek irailaren 7an 13. Zorionak eta mosu

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 19° / 32° ☀️

ASTELEHENA ↓ 19° / 26° ☁️

EGUAZTENA ↓ 16° / 22° ☁️

DOMEKA ↓ 19° / 30° ☀️

MARTITZENA ↓ 17° / 22° ☁️

EGUENA ↓ 15° / 23° ☁️



GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

"Zeharkaldia egiteko, fisikoki eta mentalki prestatuta egon behar da"

Maria Lopezek, Irati Sarriugartek eta Edurne Solagurennek gustuko dute mendia eta lagun artean egotea. Biak uztartuz, urtean behin mendi zeharkaldi bat egiteko erronka dute esku artean



Maria Lopez Castillo

Erizaina
ELORRIO | 1993

Irati Sarriugarte Onaindia

Medikua
DURANGO | 1993

Edurne Solaguren Etxeandia

Irakaslea
BILBO | 1984

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Durangaldeko hamahiru laguneko talde bat 3.000 lbones mendi zeharkaldia egitera joan zen uztailean. Aterpetxerik aterpetxe sei eguneko zeharkaldia egin zuen talde horretako hiru kide dira Maria, Irati eta Edurne. Orain hiru urte jaiotako ekimen honek datozen urteetan jarraipena izatea gura dute.

Maria eta Irati, orain hiru urte egin zenuten zuen lehenengo ibilaldia Pirinioetan. Orduan hiru lagun joan zineten. Zelan sortu zen guztia?

Maria: Lagun batek, Anek, aspalditik zuen gogoa zeharkaldi bat egiteko eta proposamena egin zigun. Camilleren Bidea egin genuen. Oso

esperientzia polita izan zen, eguraldiak lagundu ez arren.

Irati: Hiru egunez euri zaparrada itzelak bota zituen eta ez ginen ondo prestatuta joan. Mendian miseria apur bat pasatu daitekeela ikasi genuen. Iaz Carros de Foc mendi zeharkaldia egin genuen eta lehenengo euri tanta bota zuen unean bertan euritik babesteko poltsa ipini genuen.

Maria: Geuk bakarrik generaman halako poltsa. Lehendik eskarmen-tua geneukan.

Iaz bederatzi laguneko taldea osatu zenuten.

Maria: Bai. Gurearen moduko beste talde bat zegoela jakin genuen, Pirinioetan zeharkaldia egin zue-

na, eta talde biak batzea erabaki genuen. Aurten gehiago batu dira. **Irati:** Askotariko lagunak batzen dituen taldea gara, mendian eta lagun artean egotea gustuko duena

na, eta talde biak batzea erabaki genuen. Aurten gehiago batu dira.

Irati: Askotariko lagunak batzen dituen taldea gara, mendian eta lagun artean egotea gustuko duena.

Edurne, zu aurten batu zara.

Edurne: Urtean zehar mendian ibiltzen naiz, baina inoiz ere ez dut horrelako zeharkaldi luzerik egin.

Aukera sortu zenean, pentsatu barik animatu nintzen, gutxi batzuk baino ezagutzen ez nituen arren. Talde jatorra da eta oso ondo moldatu gara. Erraza izan da.

Abantaila ala traba da gehiago 13 laguneko taldea izatea?

Edurne: Talde handia edo txikia izan, berdin sortu daitezke arazoak. Arlo fisikoan berdintsu ibili garelako nuke eta elkarbizitzan ondo konpondu gara. Barre mordo egin dugu eta ez dugu tirabirarik izan.

Prestaketa berezirik behar da?

Edurne: Mendian ibiltzen jakin behar da. Eta taldean zoazela jakinda, horren beharizanetara egokitzen jakin behar da; fisikoki eta mentalki prestatuta egon behar da.

Maria: Eguraldi eskasagaz ere mentalki prestatuta joan behar da, aurrera egiteko. Baliteke busti-busti egonda ere ordu bian oinez jarraitu beharra, edo aterpetxera heldu eta ur berorik ez egotea.

Zelako esperientzia da?

Edurne: Polita. Mendiak askatasun handia ematen du; nire momentua da. Naturagaz bat egiteko edo denagaz deskonektatzeko aukera ematen du. Taldeagaz partekatutikoa nabarmenduko nuke, paisaia izugarriak, bidean topaturiko jendeagaz egindako hartu-emanak...

Maria: Hala da. Gainera, aterpetxez aterpetxe joanda bestela ezagutu-ko ez genituzken paraje ederrak ikusteko aukera dugu.

Urteroko zita bihurtuko da?

Maria: Proposamen polita dela uste dut, datozen urteetan jarraipena izango duena. Aurten etorri ezin izan den hamalagarren lagun bat ere prest dago.

Edurne: Polita litzateke, bai. Ez dago jakiterik, baina posible den neurrian eutsiko diogula uste dut.

Datorren urterako proposamenik?

Irati: Bai. Atlasera joatea, Las Feixas zeharkaldia, Himalaia... (barrez).

Mendi bat?

Edurne: Mugarra, zerbait berezia transmititzen dit.

Maria: Torres de Lipain (Txile)

Irati: Pirinioetan, Ouletteseko aterpetxearen ingurutik dagoen Vignemalaren ikuspegia.

Lau-hortza

Mertxe Mujika
Balanzategi
AEK



Ofizialtasuna

Konturatu orduko, amaitu da abuztua. Atzean geratu dira egun osoko hondartza egunak edota mendi irteerak. Hemendik aurrera, betiko errutinak hartuko du lekukoa, ze erremedio gura badugu berriro ere opor egunekin gozatu!

Oporretan egonagatik ere, ez dut galdu egunkariak irakurtzeko dudan ohitura. Oraingo honetan ez da faltan egon zer jarraitu medioetan. Niri atentzioa eman dit Espainiako Kongresuan Euskara, Galiziera eta Katalana erabiltzeko aukera emateak sortu duen ikusmira eta, zenbatengan, ilusioa. Ez dut nik zalantzan jarriko horrelako ekimenek duten oihartzuna eta ikusgarritasuna, ezta hizkuntza gutxituentzat duten eragina. Gurera etorrita, baina, ez dut uste aldaketa nabarmenik ekarriko duenik, ikustea besterik ez dago Nafarroako Erkidegoan gobernu osatzeko orduko negoziaketetan euskarak izan duen tokia, eta are gehiago, aurrerantzean ere ofizialtasunaren inguruan aurrera-pausorik ez denean aurreikusten.

Zenbat aurreratuko dugu Madrilgo gorteetako diputatu euskaldunentzako itzulpen zerbitzua jarrita, gero hemen ezin badugu, esaterako, Barbie filma euskaraz ikusi? Uste dut egokia goa litzatekeela estatuari eskatzea inbertsioak egitea aipatutako hizkuntza ofizialen alde. Baina horretarako, alderdi euskaltzaleek argi egin beharko lukete indar Madrilan, hango Gobernuarekin negoziatu beharreko gaitan, serio eta lehenetasunez sartu Euskararen normalizazioa; azpiegiturak, transferentziak eta inbertsio ekonomikoekin batera.

Hala ere, askoz hobe genuke gure erakundeek koherentziaz jokatu balute euskarak bertan duen ofizialtasunarekin, zaila baita ulertzea oraindik ere zenbat kostatzen den euskaraz bizitzea!

ERDI-MAILA:

- Mantentze-lan elektromekanikoa
- Beroa sortzeko instalazioak
- Elikagaiak elaboratzeko teknikaria
- Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria

leartibai
ikastetxea

Markina-Xemein
info@leartik.eus

LANBIDE HEZIKETA

AZKEN PLAZAK!

deituz
94 616 90 02

GOI-MAILA:

- Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
- Administrazioa eta finantzak
- Web aplikazioen garapena
- Automatizazioa eta robotika industrialak
- Mekatronika industrialak
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

HETEL